



DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren
ebaluazio programa

Fase esperimentaleko 2. deialdia

**Ikastegietako Kalitate Batzordeek
DOCENTIAZ programari buruz egindako iritzi
inkestan oinarritutako txostena**

2012ko maiatza

AURKIBIDEA

	Or.
1. Sarrera	5
2. Galdera-sortaren diseinua eta garapena	7
3. Erantzunen azterketa	7
4. Informazioaren azterketa	33
5. Ondorioak	35

ERANSKINAK

1. eranskina: Ikastegiko Kalitate Batzordeak egindako txosten eredua	37
2. eranskina: Ikastegiko Kalitate Batzordeari zuzendutako txosten eredua	53

1. SARRERA

DOCENTIAZ programa irakasleen jarduera ebaluatzeko prestakuntza programa bat da, eta helburu gisa irakasleen irakaskuntza arloa aintzatestea eta UPV/EHUKo irakaskuntza hobetzea ekarriko duten ekintzak ezartzea ditu.

Borondatezkoa da, eta irakaslan ebaluatzeko hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaskuntzari buruzko inkesta bat beteta) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakasleen lanaren zenbait alderdiri buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, irakaslearen ebaluazioari buruzko azken txostena sortzen da, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak egindakoa (IEUB).

DOCENTIAZ programaren fase esperimentaleko bigarren deialdia 2011ko ekainean jarri zen martxan, ohiko bideetatik ezagutarazi zen, eta 2012ko otsailean amaitu da.

Ikastegiko Kalitate Batzordeak DOCENTIAZ programan parte hartzen duten bertako irakasle bakoitzaren txosten bat egin behar du. Txosten horiek 2011ko irailetik urrira bitartean egin zituzten.

Ikastegiko Kalitate Batzordeak bigarren deialdi esperimental honetan egindako autotxostena lehen deialdian erabilitakoa baino sintetikoagoa da (ikusi 1. eranskina). Bertan, Kalitate Batzordeko kideei ikastegiko irakasleen lanaren honako alderdi hauei buruzko informazioa emateko eskatu zaie:

- I. Gauzatze formala; egon daitezkeen kexei buruzko galdera: ikastegian edo UPV/EHUren Ikuskaritza Zerbitzuan izapidetuak.
- II. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren plangintza eta garapena; irakasleak aurkeztutako ikaslearen gida irakasgaikoarekin eta titulaziokoarekin bat datorren egiaztatu behar da (azken bi horiek ikastegiaren onespena dute).
- III. Emaitzak; irakasleak hautatutako irakasgaiaren arrakasta tasak aurkeztu behar dira, baita *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta* ere, Kalitate Batzordeak horiek dagokien testuinguruan kokatzeko informazioa eman dezan.
- IV. Irakasleen garapen profesionala: titulazioen, ikastaroen, moduluen eta irakasgaien koordinazioari buruzko informazioa eta hobetzeko prestakuntzari, berrikuntzari eta jarduera instituzionalei buruzkoa eskatzen da.

Bigarren deialdi esperimental honetan, Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetzak Kalitate Batzordeek txostenak behar bezala gauzatu ahal

izateko eta txosten horiek ikastegitik eman dezakegun informazioan bakarrik oinarrituta egoteko ahalegina egin du.

Txosten honek 2011ko abenduan Ikastegietako Kalitate Batzordeei (aurrerantzean, IKB) egindako galdera-sortatik ateratako emaitzak (ikusi 2. eranskina) barne hartzen ditu (Batzordeek beren lana amaitutakoan ateratakoak). Ikastegietako Kalitate Batzordeek anonimoki eta modu telematikoa erantzun zioten galdera-sortari, horretarako *encuestafácil* plataforma erabili.

Guztira Kalitate Batzordeetako 170 kideri egin genien galdera-sorta betetzeko gonbita; horietatik 91k bete zuten. Kopuru nahiko altua da, edozein inkesta telematikotan galtzen diren erantzunen kopurua kontuan hartzen badugu. Azken finean, populazioaren % 53k erantzun zieten galderei. Honako taula honetan ikus daitezke UPV/EHUko ikastegi bakoitzean lortutako emaitza kopuruak:

Ikastegi bakoitzeko erantzun kop.

ARABAKO CAMPUSA	Betetako galdera-sortak
Farmazia Fakultatea	4
Gasteizko Irakasleen UE	5
Letren Fakultatea	5
Gasteizko Enpresa Ikasketen UE	2

BIZKAIKO CAMPUSA	Betetako galdera-sortak
Bilboko Ingeniaritza GET	11
Nautika eta Itsasontzi-makineria GET	2
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	5
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	10
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	4
Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	2
Arte Ederren Fakultatea	2
Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	3
Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE	4
Leioako Erizaintzako UE	5
Bilboko Irakasleen UE	5

GIPUZKOAKO CAMPUSA	Betetako galdera-sortak
Donostiako Irakasleen UE	5
Donostiako UE Politeknikoa	5
Psikologia Fakultatea	2
Informatika Fakultatea	1
Donostiako Erizaintzako UE	2
Donostiako Enpresa Ikasketen UE	2
Zuzenbide Fakultatea	3
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	1

2. GALDERA-SORTAREN DISEINUA ETA GARAPENA

Galdera-sortak atal irekiak dituen neurketa eskala bat du. Lau bloke tematikotan banatzen diren 19 galderak osatzen dute:


- 1) DOCENTIAZ programaren funtsezko edukiei buruzko galderak (1etik 9ra, biak barne)
- 2) Ikastegiko Kalitate Batzordearen funtzionamenduari buruzko galderak (10etik 13ra)
- 3) DOCENTIAZ programaren hedapenari eta aplikazio informatikoari buruzko galderak (14tik 16ra)
- 4) Irakaslana Ebaluatze Zerbitzuaren (SED/IEZ) funtzionamenduari buruzko galderak (17tik 19ra)

3. EMAITZEN AZTERKETA

Datuak grafiko batean aurkeztu ditugu; bertan, eskalako balio bakoitzeko erantzunen banaketa portzentajea ikus daiteke. Grafiko honetan, batezbestekoa, konfiantza tarte, laginaren tamaina eta, amaitzeko, desbiderapen tipikoa eta errore estandarra daude irudikatuta. Grafikoaren azpian eskalako balio bakoitzean bildutako iritzi kopurua eta kopuru horietako bakoitzari dagokion portzentajea agertzen dira.

Horrez gain, atal irekia duten itemetan, bildutako erantzun multzoaren laburpen bat ere agertzen da. Adierazpen bakoitzaren ondoan horren agerpen maiztasuna dago adierazita, parentesi artean.


1. itema.- DOCENTIAZ programan erabilitako adierazleak egokiak dira irakaskuntza jardura ebaluatzeko.



Azterketa teknika	
Batezbestekoa	3,231
Konfiantza tarte (95%)	[3,071 – 3,390]
Laginaren tamaina	91
Desbiderapen tipikoa	0,776
Errore estandarra	0,081

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	0	% 0
Pixka bat ados	17	% 18,68
Erdizka ados	38	% 41,76
Nahiko ados	34	% 37,36
Gutiz ados	2	% 2,2
Guztira	91	% 100


2. itema.- DOCENTIAZ programaren dimentsio bakoitzeko zamak ondo banatuta daude.



Azterketa teknikoa	
Batezbestekoa	3,289
Konfiantza tarte (95%)	[3,121 - 3,456]
Laginaren tamaina	90
Desbiderapen tipikoa	0,811
Errore estandarra	0,085

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	0	% 0
Pixka bat ados	16	% 17,78
Erdizka ados	36	% 40
Nahiko ados	34	% 37,78
Gutiz ados	4	% 4,44
Guztira	90	% 100


3. itema.- DOCENTIAZ programa irakasleak beren irakaskuntzaren kalitatearen arabera bereizteko baliagarria da.



Azterketa teknika	
Batezbestekoa	2,864
Konfiantza tarte (95%)	[2,673 - 3,054]
Laginaren tamaina	88
Desbiderapen tipikoa	0,912
Errore estandarra	0,097

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	7	% 7,95
Pixka bat ados	20	% 22,73
Erdizka ados	41	% 46,59
Nahiko ados	18	% 20,45
Gutiz ados	2	% 2,27
Guztira	88	% 100

4. itema.- DOCENTIAZ programa honela defini daiteke.




Azterketa teknikoa	
Hezigarria da, irakasleentzat gidari izan baitaiteke irakaslan ondo egiteko	
Batezbestekoa	3,078
Konfiantza tarte (95 %)	[2,884 – 3,272]
Laginaren tamaina	90
Desbiderapen tipikoa	0,939
Errore estandarra	0,099
Beharrezkoa da, irakaslanari garrantzia ematen baitio	
Batezbestekoa	3,689
Konfiantza tarte (95 %)	[3,471 – 3,907]
Laginaren tamaina	90
Desbiderapen tipikoa	1,056
Errore estandarra	0,111
Egokia da, ikastegiei egiaztatze prozesuetan laguntzen baitie	
Batezbestekoa	3,500
Konfiantza tarte (95 %)	[3,287 – 3,713]
Laginaren tamaina	90
Desbiderapen tipikoa	1,030
Errore estandarra	0,109
Gardena da, ebaluazio irizpideak argitaratuta baitaude	
Batezbestekoa	3,607
Konfiantza tarte (95 %)	[3,395 – 3,818]
Laginaren tamaina	89
Desbiderapen tipikoa	1,018
Errore estandarra	0,108

	Batere ados ez	Pixka bat ados	Erdizka ados	Nahiko ados	Gutziz ados	Gutzizkoa k
Hezigarria; irakasleek irakaskuntza jardunbide egokiak gauzatzeko gida gisa erabiltzen dute	4 (% 4,44)	20 (% 22,22)	35 (% 38,88)	27 (% 30)	4 (% 4,44)	90 (% 100)
Beharrezkoa; irakaskuntzari garrantzia ematen dio	0 (% 0)	17 (% 18,88)	17 (% 18,88)	33 (% 36,66)	23 (% 25,55)	90 (% 100)
Egokia; ikastegiei akreditazio prozesuetarako laguntza ematen die	4 (% 4,44)	11 (% 12,22)	24 (% 26,66)	38 (% 42,22)	13 (% 14,44)	90 (% 100)
Gardena; ebaluazio irizpideak argitaratuta daude	3 (% 3,33)	9 (% 10)	25 (% 27,77)	35 (% 38,88)	17 (% 18,88)	90 (% 100)

5. itema.- Marka ezazu programa definitzen duen kalifikatzaile bat.

- ✓ Osagarria, ez oso esanguratsua (2)
- ✓ Egokia (8)
- ✓ Hobetzen laguntzen du/hezigarria (7)
- ✓ Beharrezkoa (8)
- ✓ Burokratikoa (3)
- ✓ Kontrolatzailea (2)
- ✓ Esperimentala (ez oso garatua) (7)
- ✓ Berritzailea (2)
- ✓ Hobetu daiteke (6)


6. itema.- DOCENTIAZ programan irakaskuntza jarduerari buruz informatzeko ezarritako iritzi iturri hauek egokiak dira.



Azterketa tekniko	
Irakasleak	
Batezbestekoa	3,596
Konfiantza tarte (%) 95	[3,406 – 3,785]
Laginaren tamaina	89
Desbiderapen tipikoa	0,914
Errore estandarra	0,097
Ikastegiko kalitate Batzordea	
Batezbestekoa	3,315
Konfiantza tarte (%) 95	[3,110 – 3,519]
Laginaren tamaina	89
Desbiderapen tipikoa	0,984
Errore estandarra	0,104
Ikasleak	
Batezbestekoa	3,386
Konfiantza tarte (%) 95	[3,164 – 3,609]
Laginaren tamaina	88
Desbiderapen tipikoa	1,066
Errore estandarra	0,114

	Batere ados ez	Pixka bat ados	Erdizka ados	Nahiko ados	Gutziz ados	Gutzizkoa k
Irakasleak	1 (% 1,12)	10 (% 11,23)	26 (% 29,21)	39 (% 43,82)	13 (% 14,60)	89 (% 100)
Ikastegiko Kalitate Batzordea	3 (% 3,37)	15 (% 16,85)	31 (% 34,83)	31 (% 34,83)	9 (% 10,11)	89 (% 100)
Ikasleak	5 (% 5,61)	10 (% 11,23)	33 (% 37,07)	26 (% 29,21)	14 (% 15,73)	89 (% 100)


7. itema.- DOCENTIAZ programan ezarritako tresna hauek irakaskuntza jarduerari buruz informatzeko egokiak dira.



Azterketa teknikoak	
Autotxostena	
Batezbestekoa	3,607
Konfiantza tarte (95%)	[3,415 – 3,799]
Laginaren tamaina	89
Desbiderapen tipikoa	0,925
Errore estandarra	0,098
Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena	
Batezbestekoa	3,315
Konfiantza tarte (95%)	[3,108 – 3,521]
Laginaren tamaina	89
Desbiderapen tipikoa	0,995
Errore estandarra	0,106
Ikasleen iritziari buruzko inkesta	
Batezbestekoa	3,292
Konfiantza tarte (95%)	[3,079 – 3,505]
Laginaren tamaina	89
Desbiderapen tipikoa	1,025
Errore estandarra	0,109

	Batere ados ez	Pixka bat ados	Erdizka ados	Nahiko ados	Gutziz ados	Gutzizkoak
Autotxostena	2 (% 2,24)	9 (% 10,11)	23 (% 25,84)	43 (% 48,31)	12 (% 13,48)	89 (% 100)
Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena	3 (% 3,37)	16 (% 17,97)	29 (% 32,58)	32 (% 35,95)	9 (% 10,11)	89 (% 100)
Ikasleen Iritzi Inkesta	4 (% 4,49)	15 (% 16,85)	31 (% 34,83)	29 (% 32,58)	10 (% 11,23)	89 (% 100)


8. itema.- DOCENTIAZ programak hedapen handia izan du.



Azterketa teknikoa	
Batezbestekoa	3,239
Konfiantza tarte (95%)	[3,041 – 3,436]
Laginaren tamaina	88
Desbiderapen tipikoa	0,947
Errore estandarra	0,101

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	3	% 3,41
Pixka bat ados	16	% 18,18
Erdizka ados	32	% 36,36
Nahiko ados	31	% 35,23
Gutiz ados	6	% 6,82
Guztira	88	% 100


9. itema.- Kalitate Batzordeak egin beharreko txostenaren edukia egokia da.



Azterketa teknikoa	
Batezbestekoa	3,170
Konfiantza tarte (95%)	[2,965 – 3,376]
Laginaren tamaina	88
Desbiderapen tipikoa	0,985
Errore estandarra	0,105

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	3	% 3,41
Pixka bat ados	21	% 23,86
Erdizka ados	28	% 31,82
Nahiko ados	30	% 34,09
Gutiz ados	6	% 6,82
Guztira	88	% 100

10. itema.- Ikastegiko Kalitate Batzordeari eskatutako DOCENTIAZ programako adierazleak ikastegiaren kudeaketa sistemaren zati dira.



Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Bai	28	% 33,33
Ez	2	% 2,38
Neurri batean	43	% 51,19
Etorkizunean erabiltzen hastea aurreikusten da	11	% 13,10
Guztira	84	% 100

11. itema.- Adieraz ezazu txosten bakoitza egiteko erabilitako denbora (ordutan edo minututan).

20 minutu (3)

45 minutu (3)

1/2 ordu (8)

1 ordu (14)

2 ordu (19)


3 ordu (2)

4 ordu (6)

5 ordu (2)

8 ordu (2)

12. itema.- Txostenak egiteko ezarritako epea nahikoa izan da.



Azterketa teknikoa	
Batezbestekoa	3,465
Konfiantza tarte (95%)	[3,246 – 3,684]
Laginaren tamaina	86
Desbiderapen tipikoa	1,037
Errore estandarra	0,112

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	3	% 3,49
Pixka bat ados	13	% 15,12
Erdizka ados	24	% 27,91
Nahiko ados	33	% 38,37
Gutiz ados	13	% 15,12
Guztira	86	% 100

13. itema.- Adieraz itzazu autotxostena egitea zaildu dizuten hiru alderdi.

Gaikako zortzi bloke zehaztu ditugu:

1. Ebidentzia falta
2. Ebaluazio irizpide anbiguoak
3. Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena egiteko zailtasunak
4. Aplikazio informatikoa
5. Denbora librea
6. Esperientzia falta
7. Ikastegiko Kalitate Batzordearen funtzioak
8. Programaren alderdi orokorrak

1. EBIDENTZIA FALTA

- ✓ Ebidentzia falta: saileko informazioa, irakasle bakoitzari esleitutako kreditu kopurua eta historia akademikoa falta dira, baita hautazko irakasgaiekin, prestakuntza eta berrikuntza jarduerekin, etab. erlazionatutako datuak ere. (19)
- ✓ Informazio objektiborik ez dugun alderdiei buruzko informazioa eman behar da. (4)
- ✓ Egiaztatzeko zaila den informazioa: Bologna planekoak ez diren irakasgaiak. (2)
- ✓ Kexak eta erreklamazioak egiteko prozedurarik ez duten ikastegiak.
- ✓ Koordinazio instituzionalerako ziurtagiriak: lan hori egin dela adierazten dute, baina ez funtzioa behar bezala bete duen.

2. EBALUAZIO IRIZPIDE ANBIGUOAK

- ✓ Termino zehaztugabeak edo anbiguoak; zer dira nabarmentzeko moduko desberdintasunak? Zer da egokia/desegokia izatea? (7)
- ✓ Zehaztasun falta eskatutako informazioaren batean. (2)
- ✓ Ez zegoen aurrez ezarritako irizpiderik. Batzorde bakoitzaren arbitrariotasuna kalifikazioa egitean. (5)
- ✓ Arrakasta tasak testuinguruan kokatzeko zailtasuna.
- ✓ Terminoak bateratzeko beharra. Nik "irakasgaiko arduradun" esaten diot eta hark "irakasgaiko koordinatzaileen programa", etab.
- ✓ Ebaluazioa zailtzen duten alderdi oso generikoak daude.

3. IKASTEGIKO KALITATE BATZORDEAREN TXOSTENA EGITEKO ZAILTASUNA

- ✓ Konplikatua.
- ✓ Datuak egiaztatzea.
- ✓ Zaila da txostenak titulazioaren arabera testuinguruan kokatzea.
- ✓ Zaila da txostenak mailaren arabera testuinguruan kokatzea.
- ✓ Zaila da txostenak irakasgai motaren arabera (esperimental, teorikoa, etab.) testuinguruan kokatzea.

4. APLIKAZIO INFORMATIKOA

- ✓ Akatsak aplikazio informatikoan; motelegia da, eta ez oso erabilerraza. (22)
- ✓ Azken kopia bat egin behar da PDF formatuan.
- ✓ Atzerapenak txostenak erabilgarri uzteko epean.
- ✓ Sistema ez ezagutzea.

5. DENBORA LIBREA

- ✓ Denboran zehar luzatzea; denbora asko eskatzen du. (7)

6. ESPERIENZIA FALTA

- ✓ Prozeduraren berritasuna.
- ✓ Kontuak emateko ohitura falta. (2)
- ✓ Itemak ez ezagutzea.


7. IKASTEGIKO KALITATE BATZORDEAREN FUNTZIOAK

- ✓ Ikastegiko Kalitate Batzordeari dagokiona argi zehaztea.
- ✓ IKBko kideek ez dute kasu guztietan irakaskuntzaren egoera behar adina ezagutzen.
- ✓ Txostena egiteko batzordearen deialdirik eza.
- ✓ Gainerako kideei txosten guztien berri emateko zailtasunak. (2)
- ✓ Kalitate Batzordeko kideen arteko koordinazio falta.

8. PROGRAMAREN ALDERDI OROKORRAK

- ✓ Programaren funtzionamendua.
- ✓ Helburua betetzeko sinesgarritasun falta.
- ✓ Osatu gabe dago: galdera-sortak ez ditu barne hartzen irakasleak ikasgelan gauzatzen dituen hainbat ekintza.
- ✓ Formatu burokratikoa.


14. itema.- Web orrialdearen edukia autotxostena egiteko lagungarria izan da.



Azterketa teknikoa	
Batezbestekoa	3,393
Konfiantza tarte (95%)	[3,202 – 3,584]
Laginaren tamaina	84
Desbiderapen tipikoa	0,892
Errore estandarra	0,097

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	1	% 1,19
Pixka bat ados	12	% 14,29
Erdizka ados	32	% 38,1
Nahiko ados	31	% 36,9
Gutiz ados	8	% 9,52
Guztira	84	% 100


15. itema.- Aplikazio informatikoa txostena betetzeko lagungarria izan da Ikastegiko Kalitate Batzordearentzat.



Azterketa teknikoa	
Batezbestekoa	3,250
Konfiantza tarte (95%)	[3,006 – 3,494]
Laginaren tamaina	84
Desbiderapen tipikoa	1,139
Errore estandarra	0,124

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	7	% 8,33
Pixka bat ados	16	% 19,05
Erdizka ados	19	% 22,62
Nahiko ados	33	% 39,29
Gutiz ados	9	% 10,71
Guztira	84	% 100


16. itema.- Erabiltzailearen gida erabilgarria izan da txostena aplikazio informatikoan betetzeko.



Azterketa teknikoa	
Batezbestekoa	3,571
Konfiantza tarte (95%)	[3,426 - 3,717]
Laginaren tamaina	84
Desbiderapen tipikoa	0,682
Errore estandarra	0,074

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	0	% 0
Pixka bat ados	5	% 5,95
Erdizka ados	30	% 35,71
Nahiko ados	45	% 53,57
Gutiz ados	4	% 4,76
Guztira	84	% 100


17. itema.- Irakaslana Ebaluatze Zerbitzuak (SED/IEZ) emandako prestakuntza saioa lagungarria izan da txostenak betetzeko.



Azterketa teknikoa	
Batezbestekoa	3,423
Konfiantza tarte (95%)	[3,201 - 3,644]
Laginaren tamaina	71
Desbiderapen tipikoa	0,951
Errore estandarra	0,113

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	3	% 4,23
Pixka bat ados	6	% 8,45
Erdizka ados	28	% 39,44
Nahiko ados	26	% 36,62
Gutiz ados	8	% 11,27
Guztira	71	% 100


18. itema.- SED/IEZeko langileek behar bezala erantzun diete egindako kontsultei.



Azterketa teknika	
Batezbestekoa	4,043
Konfiantza tarte (95%)	[3,852 – 4,235]
Laginaren tamaina	69
Desbiderapen tipikoa	0,812
Errore estandarra	0,098

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	0	% 0
Pixka bat ados	2	% 2,9
Erdizka ados	15	% 21,74
Nahiko ados	30	% 43,48
Gutiz ados	22	% 31,88
Guztira	69	% 100

19. itema.- SED/IEZeko langileek behar izan dugun guztietan lagundu digute.



Azterketa teknika	
Batezbestekoa	4,169
Konfiantza tarte (95%)	[3,985 – 4,353]
Laginaren tamaina	71
Desbiderapen tipikoa	0,793
Errore estandarra	0,094

Adostasun maila	Iritzi kop.	%
Batere ados ez	0	% 0
Pixka bat ados	1	% 1,41
Erdizka ados	14	% 19,72
Nahiko ados	28	% 39,44
Gutiz ados	28	% 39,44
Guztira	71	% 100

Adieraz ezazu nabarmendu nahi duzun beste alderdiren bat

Galdera-sortako azken atal hau aztertzeko, gaikako bederatzi bloke ezarri ditugu:

1. Programaren helburuak
2. Programaren adierazleak eta dimentsioak
3. Programaren ebaluazio irizpideak
4. Programaren informazio iturriak
5. Ikastegiko Kalitate Batzordeen funtzionamenduak
6. Ebidentzia falta
7. Aplikazio informatikoa
8. SED/IEZek egindako lanaren aintzatespena

1. PROGRAMAREN HELBURUAK

- ✓ Irakaskuntza bikaintasuna sustatzera eta aintzatestera bideratutako ebaluazio mekanismoak ez dira helburu gisa kalitate estandar onargarriak eta oinarrizkoak lortzea dutenen berdinak. Bi helburuak programa bakarrean bateratu nahi izatea ez zait aukera egokia iruditzen. Ondorioz, erabilitako puntuazio eta sailkapen mekanismoa ez zait oso egokia iruditzen.

2. PROGRAMAREN ADIERAZLEAK ETA DIMENTSIOAK

- ✓ 3. dimentsioaren barnean (irakasleen garapen profesionala), 3.1. atala (koordinazio instituzionala) sinplifikatu egin beharko litzateke, eta ez litzuke horrenbeste azpiatal izan beharko. 3.2. atala bezalakoa izan beharko luke (Prestakuntza...); alegia, nahikoa izan behar luke graduen kudeaketarekiko edozein konpromiso aipatzearekin, aukera bakoitza segmentatu gabe (horietako bakoitzak eskain dezakeena jakiteko).
- ✓ Kokatzeko zailak diren bi alderdi: 1. "3.1 Koordinazio instituzionala" atalean, 2. epigrafea baloratzea zaila edo ezinezkoa da, gure ikastegian ez baitugu inoiz irakasgai koordinatzaileak eduki. 2. Nire ustez, 3.2 atalean "Ikertu"-ri dagokion informazioa sartu da tartean. Plataforma hau bakarrik erabili behar litzatekeela uste dut.
- ✓ Ez nago ziur irakasgaiaren arrakasta tasa adierazle esanguratsua ote den.
- ✓ Gehiago baloratu behar dira ikasgelako zeregin tradizionalak (neketsuak) eta gutxiago egiaztatu gabeko berrikuntzak.
- ✓ Ez dakit azkenean unibertsitate ospetsuenak diren gaingiditzen duten ikasle gehienak dituztenak; baina, gizarteko zati gisa, profesional gaituenen zerbitzua jaso nahiko nuke.
- ✓ Iaztik hona asko hobetu dela uste dut, eta hobekuntza ildo horri jarraitu behar diogu, ez tresnari dagokionez bakarrik, baita adierazleak titulazioak eta irakasleen kalitatea egiaztatzeko bete behar ditugun baldintzei egokituz ere. Gai batzuetan gainazalean bakarrik gelditzen da; irakasleak beren lanagatik gehiago bereizten dituen adierazleren bat sartu beharko dugu.

3. PROGRAMAREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- ✓ Eskatzen dena argi azaltzea, irakasleek txostena egin dezaten. Hamaika motatako txostenak ez egitea. Dimentsio bakoitzaren eta horien atalen ebaluazioa aurrez zehaztu beharko da batzorde guztietarako. Gerta daiteke zuk zuzen gisa kalifikatutakoa beste batzorde batek desagokitzat jotzea, edo alderantziz.

- ✓ Objektiboki ezarri beharko litzateke adierazle bat noiz gelditzen den argi eta garbi onargarria izatetik kanpo.
- ✓ Egungo egiturarekin, ikastegiak aldeko txostenak egiteko gauzatu beharreko izapide bat besterik ez da izango.
- ✓ Arduraldi eta trebetasun guztiz desberdinak dituzten bi irakaslek balorazio bera jaso dezaketela iruditu zait. Are gehiago, arduraldi txikiagoa duenak eta horrenbesteko trebetasunik ez duenak besteak baino balorazio hobea jaso dezake.
- ✓ Tresna erabilgarria da irakasleak sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko, baina zaila da maila, gradu eta irakasgai mota desberdinetan lan egiten duten irakasleak objektiboki konparatzea ahalbidetuko duen informazioa lortzea.

4. PROGRAMAREN INFORMAZIO ITURRIAK

- ✓ Ikasleek egindako irakasleen ebaluazioa arretaz erabili behar da. Informazio horren fidagarritasuna bermatzeko egiaztapen bat ezarri beharko litzateke; esaterako, irakasleen exigentzia mailarekiko eta irakasgaian ematen dituen notekiko korrelazio bat ezarrita. Horrez gain, interesgarria izan daiteke talde jakin bati eskolak ematen dizkioten irakasle guztien banakako balorazioa kontuan hartzeko, ikasgelako dinamikari eta metodologiari buruzko informazio gehiago izateko.
- ✓ Oinarri zehaztuagoa duen iritzia eman ahal izateko, interesgarria izango litzateke saileko zuzendaritzaren txosten bat edukitzea, hori baita irakaskuntzarekin zerikusia duten gaietatik gertuen dagoen organoa.

5. IKASTEGIKO KALITATE BATZORDEEN FUNTZIONAMENDUA

- ✓ Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostenak egiteko bilkuraren deialdia egin behar denean, batzordeko kide guztiei jakinarazi beharko zaie (SED/IEZek egin behar du); modu horretan ez litzateke gure ikastegian gertatu dena gertatuko.
- ✓ Gehiegizko lan karga da Kalitate Batzordeko kideentzat; eta ez dute arduraldi horrengatik krediturik jasotzen aintzatespen gisa.
- ✓ Ez litzateke gaizki hartu behar zeregin horiek ez egitea; premiazko eskaera asko ditugu. Pixkanaka erritmo berria hartu eta lehengoa (tituluak, mintegiak...) alde batera utzi behar dugu.
- ✓ Txostenak egitea lan karga jasanezina izango da Kalitate Batzordeentzat.
- ✓ Lan hau ere Kalitate Batzordeari egokitu zaio; Batzordeko kide gehienak graduako koordinatzaileak dira, eta ez dute zereginak gauzatzeko benetako deskargarik.
- ✓ Objektiboki aztertu nahi dira objektibotzat hartu ezin diren gauzak. Adibidez, nola ebaluatuko dugu koordinatzaile baten lana ona den edo ez? Zer irizpide erabiliko ditugu? 420 irakasleko ikastegietan ezinezkoa da Kalitate Batzordeak eskatutako zeregina egitea; ez dago egin dizkiguten galdera askorentzako erantzunik. Ez du zentzurik eta denbora galtzea besterik ez digu ekarriko; baditugu zeregin hobeak.
- ✓ Teknikariek (SED/IEZekoek edo Fakultatekoek) bete ditzakete zati gehienak, aplikazio informatikoko datuak oinarri gisa hartuta. Hala, Kalitate Batzordeak koadro argitzaileak bete besterik ez luke egin behar (batzuek bakarrik emango lituzkete arazoak).
- ✓ Irakasleak ebaluatzerakoan, ez da kontuan hartzen saileko zuzendariak irakasleari buruz duen iritzia. Edozein enpresatan, saileko zuzendariaren iritzia funtsezkoa da langilearen errendimendua

ebaluatzeko, langileak nola lan egiten duen benetan ezagutzen duena baita. Bilboko Ingeniaritza Eskolako irakasle batzuek, lanaldi osoko kontratua badute ere, enpresetan lan egiten dute. Beraz, ikastegian eskolak eta tarteka tutoretzaren bat besterik ez dute ematen. Hala ere, proposatutako ebaluazio sistema hau arazorik gabe gaindi dezakete, eskatutako paperak beteta.

- ✓ Nire parte-hartzea aldatu egin da iaztik urte honetara. Iaz ebaluatu ninduten, eta txostena luzeegia iruditu zitzaidan. Aurten Kalitate Batzordeko kide izan naiz, eta txostena motzegia iruditu zait, ia ez dugu esatekorik eduki. Txostena egitea erraztu behar dugula pentsatzen dut, baina, askotan, erantzuna errazegia denean, ez da oso esanguratsua izaten.

6. EBIDENTZIA FALTA

- ✓ Gai batzuk ebaluatzen dira, baina ebaluazioari dagozkion urteetan ez zegoen halakorik, ez ziren datu horiek jasotzen, etab. Etorkizunerako sistema bikaina da, baina egoera iragankor honetan, ebidentziarik gabeko gertakariengatik zigorrak jartzea gerta daiteke.


7. APLIKAZIO INFORMATIKOA

- ✓ Aplikazio informatikoaren ideia oso ona da, eta baita berak bakarrik informazioa iraultzea ere. Hori behar dela uste dut. Dena den, edizio honetan arazo asko izan ditu.
- ✓ Beste edizio batzuetarako, softwarearen funtzionamendua aurrez kontrolatu beharko da. Hobekuntzak egin behar dira; esaterako, irakasle bat batzordekide bihurtzen bada, hortik aurrera presidenteak ez du ikusten.

8. SED/IEZek EGINDAKO LANAREN AINTZATESPENA

- ✓ Langileek emandako arreta pertsonala bikaina izan da, eta arazo eta zalantza guztiak berehala konpondu dituzte. Harremanetarako pertsonak edukitzeak lana errazten eta bermatzen du. Hamar puntu zerbitzu honetako laguntzarako eta zuzendaritzako langileentzat.
- ✓ Eskerrik asko zuen lanarengatik

Barra grafiko honek galdera bakoitzarekin bildutako emaitza multzoaren portzentaje banaketa barne hartzen du.



4. INFORMAZIOAREN AZTERKETA

Parte hartu duten batzordekide gehienak erdizka (% 42), nahiko (% 37) edo guztiz (% 2) ados daude DOCENTIAZ programaren adierazleekin. Guztira, inkesta egin dutenen % 81ek uste dute DOCENTIAZ programak proposatutako adierazleak egokiak direla.

Inkesta egin dutenen % 82k uste dute dimentsio bakoitzeko zamak ondo banatuta daudela (% 40 erdizka ados, % 38 nahiko ados eta % 4 guztiz ados).

Parte hartu duten batzordekideen % 39 ez daude oso ados edo ez daude batere ados DOCENTIAZ programa irakasleak beren irakaskuntza kalitatearen arabera bereizteko erabiltzearekin. Bestalde, % 61en ustez, programa erabil daiteke horretarako.

Ikastegietako Kalitate batzordeek honela definitzen dute DOCENTIAZ programa:

- Hezigarria (% 73 erdizka, nahiko edo guztiz ados daude).
- Beharrezkoa (% 81 erdizka, nahiko edo guztiz ados daude).
- Egokia (% 83 erdizka, nahiko edo guztiz ados daude).
- Gardena (% 85 erdizka, nahiko edo guztiz ados daude).

Programan erabilitako hiru iturriei dagokienez, irakasleen % 88k uste dute irakasleak iturri egokia direla (erdizka, nahiko edo guztiz ados); % 80k uste dute Ikastegietako Kalitate Batzordeak ere iturri egokiak direla; eta, azkenik, % 82 erdizka, nahiko edo guztiz ados daude *Ikasleen Iritzia Inkestaren* datuek emandako informazioarekin. Datu horiekin bat etorritik, Kalitate Batzordeak egin beharreko txostenaren egokitasunari buruzko galderari dagokionez, % 73ren iritziz egokia da (erdizka, nahiko edo guztiz ados), eta % 27ren iritziz, aldiz, ez.

Ebaluazio tresnak irakaskuntza jarduerari buruz informatzeko erabiltzeari dagokionez, jasotako erantzunak aurreko galderaren erantzunen antzekoak dira: % 88k uste dute autotxostena erdizka, nahiko edo guztiz egokia dela, eta % 79k uste dute ikastegian egin beharreko txostena eta ikasleen iritzia barne hartzen duen txostena egokiak direla.

Nabarmenezkoa da Kalitate Batzordeetako kideen iritzia DOCENTIAZ programaren lehen deialditik (2010eko maiatzetik 2011ko otsailera) bigarren deialdira (2012ko otsailean amaituko da) izan duen bilakaera. Lehen deialdian jasotako erantzunen arabera, % 24 ez zeuden batere ados informazio iturri gisa funtzionatzearekin, eta % 15 ez zeuden oso ados; beraz, guztira % 39k ez zuten programaren informazio iturri gisa aritu nahi.

Bigarren deialdi honetan, aldiz, badirudi ikastegiak bilakaera bat jasaten ari direla: pixkanaka, batzordekideak DOCENTIAZ txostena egitea beraiei dagokiela eta zeregin hori ez dagoela irakasleen ebaluazioarekin lotuta ohartzen ari dira; ikastegian gauzatzen den irakaslanaren aukerei eta mugei buruzko informazioa (dagokion testuinguruan kokatua) ematean datza.

Bigarren deialdi honetan, Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetzak Ikastegietako Kalitate Batzordeen zeregin bakarrak irakasleen lanaren zenbait alderdiri buruzko informazioa ematea dela. Horrez gain, irakaskuntzarekiko konpromisoa hartu duten eta, ebidentzia batzuetan oinarrituta (kexa instituzionalak edukitzea edo ez edukitzea, ikasleen iritziz txostenak, arrakasta tasak, koordinazio lanak, etab.), emaitza onak dituzten irakasleen lana azpimarratzeko aukera ona dela adierazi du. Era berean, irakasle bakoitzaren ikasle gida titulaziokoarekin eta irakasgaikoarekin alderatzeak ikasleek jasotzen duten irakaskuntzaren kalitatearen berri eman diezaioke ikastegiari.

Ikastegiekin beren kudeaketa sisteman DOCENTIAZ programako adierazleak barne hartzen dituzten galdetutakoan jasotako erantzunari dagokionez, positiboa da % 33k baietz erantzutea; % 13k bakarrik uste dute zeregin hori guztiz gauzatzeke dagoela.

Txosten bakoitza egiteko erabilitako denboran alde handiak egon dira; dena den, lehen deialdian baino denbora gutxiago erabili dutela aipatu behar da.

Programaren hedapenari heltzen badiogu, emaitzen % 77ren arabera, hedapen handia izan du; gainerako % 22k kontrakoa uste dute.

Erantzunen arabera, gehienek (% 94) uste dute DOCENTIAZ programaren web orrialdeko edukia txostena egiteko lagungarria izan dela. Horrez gain, % 73ren ustez, aplikazio informatikoak IKBren txostena betetzeko lana erraztu du. Aldi berean, % 94k uste dute SED/IEZek egindako erabiltzaile gida baliagarria izan dela txostena aplikazio informatikoarekin betetzeko.

Amaitzeko, Kalitate Batzordeek SED/IEZ zerbitzuaren aldetik jasotako arreta ontzat dute. Horrez gain, parte-hartzaile guztiek uste dute SED/IEZeko langileak batzordeen beharrak asetzeko prest egon direla, eta, % 87ren iritziz, SED/IEZek emandako prestakuntza saioa lagungarria izan da txostenak egiteko.

5. ONDORIOAK

Ikastegietako Kalitate Batzordeetako kideen gehiengoak onartu ditu DOCENTIAZ programan erabilitako adierazleak eta dimentsio bakoitzari emandako zamak. Alabaina, inkestan parte hartu dutenen zati batek uste du ebaluazio programa ez dela irakasleak beren irakaskuntzaren kalitatearen arabera bereizteko behar bezain erabilgarria; % 31 ez daude batere edo ia batere ados ebaluazio eredu honen bereizteko moduarekin. Hala, beranduagoko balorazio kualitatiboetan joera hori hartu duten hainbat iritzi bildu dira.

Era berean, inkestan parte hartu dutenen gehiengoak DOCENTIAZ programa hezigarria, beharrezkoa, egokia eta gardena dela adierazi dute. Nabarmentzekoa da ikastegiak DOCENTIAZ bezalako programak garatzeko beharra sentitzen duela, irakaskuntzari garrantzia emateko. Horrek ikastegiei hobekuntzarako ebaluazio prozesuekin hartu duten konpromisoa islatzen du.

Erabilitako informazio iturriei dagokienez, Ikastegietako Kalitate Batzordeetako kideen gehiengoak hiru iturri onartzen ditu. Ildo horretatik, lehen deialdi esperimentalarekin alderatuta, aldaketa positibo bat ikus daiteke.

Lehen deialdian, Ikastegietako Kalitate Batzordeetako kideek beren lankideak "ebaluatzeko" erreparoa erakutsi zuten. Informatzeko lana (informazio iturri bihurtzeko funtsezkoa) eta ebaluatzekoa (IEUBren erantzukizuna) nahastu zituzten. Hori horrela, Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetzak, batetik, txosten eredua laburtzeko (ikastegiari dagozkion alderdi objektiboak bakarrik aztertuta) eta, bestetik, ikastegietako batzordeen zeregina argitzeko prestakuntza saioak egiteko (hau da, ikastegiko irakasleen lanari buruzko informazioa emateko) beharra ikusi zuen. Saio horietan, bereziki azpimarratu zen DOCENTIAZ programa aukera bikaina dela irakaskuntza gauzatzen den testuinguruan ezartzeko eta ikastegiko irakaskuntzan parte hartzen duten irakasleak baloratzeko.

UPV/EHUko ikastegietako kultura ebaluatzailean gertatutako aldaketa berri honekin eta txostenaren edukian egindako aldaketekin bat etorritik, inkesta egin dutenen % 73k uste dute txostena egokia dela hasiera batean zuen helburua betetzeko.

DOCENTIAZ adierazleek ikastegiko kudeaketa sisteman parte hartzeak izugarri erraztuko luke txostena egiteko lana: % 33k baietz uste dute, eta % 51k adierazleak partzialki bakarrik erabili behar direla. Mota honetako kudeaketa sistemak erabiltzeak izugarri murriztuko luke txosten bakoitza egiteko erabili beharreko denbora. Hain zuzen ere, horrek kexa asko sorrarazi ditu Kalitate Batzordeetako kideen aldetik. Galdera-sortako atal irekietan, argi eta garbi gelditzen da ikastegiei programaren orokortzeagatik duten kezka. Horri dagokionez, pertsona askok uste dute programari eskaini beharreko ordu kopurua osoa handia izango litzatekeela.

Horrez gain, ebaluazio batzordeek txostena betetzerakoan zer izan behar duten kontuan jakiteko protokolo bat ezartzeko beharra gelditu da agerian. Protokolo horrekin, txostena betetzean sor daitekeen arbitrariotasuna murriztuko litzateke, eta irizpideak berdinduko lirateke. Ildo horretatik, DOCENTIAZ txostenean Ikastegietako Kalitate Batzordeen zeregina erraztuko duten adiera bakarreko terminoak erabiltzeko ahalegina egin behar dugu, baita, besteak beste, esanahi desberdinak nabarmentzekoa ere.

Honela adierazi zuen inkestako parte-hartzaileetako batek:

“Objektiboki ezarri beharko litzateke adierazle bat noiz gelditzen den argi eta garbi onargarria izatetik kanpo”.

Aplikazio informazioak jaso dituen kexei dagokienez, pixkanaka arazo guztiak konpondu ditugula esan behar da. Dena den, aplikazioa arinagoa eta erabilerrazagoa bihurtzeko lan egiten jarraituko dugu.

Amaitzeko, galdera-sorta bete duten pertsona guztiei UPV/EHUko irakaslan ebaluatzeko programa hau gero eta baldintza hobeagotan aplikatzeko egindako ahalegina eskertu nahi diegu. Ikastegietako Kalitate Batzordeetako kideak, DOCENTIAZ programan parte hartu duten irakasleekin batera, epe motzera fase esperimental honetatik eredu egiaztatza eta Unibertsitate osoan aplikatza igarotzeko oinarriak sortzen ari dira.

Mila esker DOCENTIAZ programan parte hartu duten pertsona guztiei, edozein proba pilotuk izan ditzakeen akatsei aurre egiteko erakutsi duten pazientziagatik.

ERANSKINA.- IKASTEGIKO KALITATE BATZORDEAK EGINDAKO TXOSTEN
EREDUA

AURKEZPENA

Ikastegiko Kalitate Batzordeko kideek irakaslearen irakaskuntza jarduera berau garatzen den testuinguru instituzionalean deskribatu beharko dute, dauzkaten ebidentzietan oinarrituta. Ikastegietako arduradun akademikoek, beren funtzioak jorratzeko garaian, euren eskumenen eremuan garatzen diren irakaskuntza jardueren inguruko ikuspegi zabala eta zeharkakoa dutelako ikusmoldeetik abiatzen da. Hori dela eta, arduradun akademikoek DOCENTIAZ programan parte hartzen duten irakasleen irakaskuntza jarduera testuinguruan jartzea eskatzen da.

Lehenik eta behin, irakasleek betebeharrak formalki betetzearen inguruko informazioa eskatzen zaie. Ondoren, arduradun akademiko diren aldetik eskatzen zaien informazioak DOCENTIAZ programan ageri diren dimentsioekin du zerikusia.

1. DIMENTSIOA: Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena
2. DIMENTSIOA: Emaitzak
 - 2.1.- Arrakasta tasak
 - 2.2.- Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta
3. DIMENTSIOA: Irakasleen garapen profesionala
 - 3.1.- Koordinazio instituzionala
 - 3.2. Prestakuntzara, berrikuntzara eta hobekuntzara bideratutako jarduera instituzionalak

Eskerrik asko DOCENTIAZ programaren fase esperimentalean laguntzeagatik eta parte hartzeagatik.

BETEBEHARRAK FORMALKI BETETZEA

Irakasleek betebeharrak formalki betetzearen inguruko informazioa ematen da

Atal honetan, Ikastegiko Kalitate Batzordeari informazioa emateko eskatzen zaio, ikastegiak berak bideratu dituen edo UPV/EHUKo Ikuskapen Zerbitzuak bideratu eta ikastegiarentzat jakinak diren kexei dagokienez ikastegiko bertako prozeduren bidez bildu dituen ebidentzietan oinarrituta.

1. Ikastegiak irakasle honen inguruko kexarik bideratu du?

☐ Ez

☐ Bai. Adierazi zer eratako kexa izan den, nola bideratu den eta zer emaitza izan duen.

Nahitaez bete beharreko eremua, Bai aukeratuz gero

2. UPV/EHUKo Ikuskapen Zerbitzuak irakasle honen inguruko kexarik bideratu du? Eta ikastegiari horren inguruko informazioa bidali dio?

☐ Ez

☐ Bai. Adierazi zer eratako kexa izan den, nola bideratu den eta zer emaitza izan duen.

Nahitaez bete beharreko eremua, Bai aukeratuz gero

1. DIMENTSIOA.- IRAKASTEKO ETA IKASTEKO PROZESUAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA

Irakaskuntza plangintzaren berri ematen da, baita irakaste eta ikasteko prozesuaren garapena tituluan ezarritako jarraibideekin bat datorren edo ez jakinarazi ere

Alderatu irakasleak emandako Ikasle Gida, Titulazioaren Gida eta Irakasgaiko Irakaskuntza Gida. Bat al dator Ikasle Gida Titulazioaren Gidarekin eta Irakasgaiko Irakaskuntza Gidarekin?

- ☐ Bai
- ☐ Ez
- ☐ Ez dago ebidentziarik

Nahitaez bete beharreko eremua, Ez aukeratuz gero

2. DIMENTSIOA.- EMAITZAK

Irakaskuntzaren emaitzen berri ematen da, prestakuntza helburuei dagokienez

2.1.- Ikasleen arrakasta tasak eta horiek irakaslearen ikastegiko testuinguruan jartzea

Sistemak automatikoki deskargatuko ditu irakasleak hautatutako irakasgaiaren (irakasgai horren Ikasle Gida aurkeztuta) azken bost urteetan ikasleek izandako arrakasta tasak.

Irakaslearen arrakasta tasak eta taldeko/mailako batezbestekoa alderatzerakoan alde nabarmenak ikusiko balira, uste duzu horretarako bidezko arrazoirik dagoela (esate baterako, irakasgaiaren zailtasun maila)?

- ☐ Ez dago alde nabarmenik taldeko/mailako batezbestekoarekin alderatzerakoan.
- ☐ Alde nabarmenak daude taldeko/mailako batezbestekoarekin alderatzerakoan. Azaldu irakasleen arrakasta tasa horietan eragin izan dezaketen arrazoiak.

Nahitaez bete beharreko eremua, bigarren aukera aukeratuz gero

2.2.- 2006/07 ikasturtetik aurrera *Ikasleek duten iritzia*ri buruzko inkestan jasotako emaitzak

*Sistemak automatikoki deskargatuko du 2006/07 ikasturtetik aurrera Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritzia*ri buruzko inkestan oinarritutako txostena, honako informazio honekin:

- o Ebaluatutako aldiko irakaskuntza zama eta inkesta.
- o Irakasgaiaren txostena (*irakasgai horretako Ikasle Gida aurkeztuta*).
- o Irakaslearen txostena.

Irakaslan Ebaluatzeko Zerbitzuak irakasleak hautatutako irakasgaiaren titulazioko txostena eta irakaslearen saileko txostena bidaliko dizkio Ikastegiko Kalitate Batzordeari. Alde nabarmenik egonez gero, uste duzue horretarako bidezko arrazoirik egon daitekeela?

- ☐ Ez dago alde nabarmenik alderatzerakoan.
- ☐ Alde nabarmenak daude alderatzerakoan. Azaldu *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritzia*ri buruzko inkestan lortutako emaitzetan eragin izan dezaketen arrazoiak.

Nahitaez bete beharreko eremua, bigarren aukera aukeratuz gero

3. DIMENTSIOA.- IRAKASKUNTZAREN GARAPEN PROFESIONALA

Irakasleen garapen profesionalari buruzko informazioa ematen da, UPV/EHUn bikaintasunezko irakaskuntza lortzeko helburuari dagokionez

3.1.- Koordinazio instituzionala

1. Irakasleak **titulazioko** koordinatzaile lanak zenbat ikasturtetan egin dituen, ebaluatu beharreko denboraldian:

Sistemak ebaluatu beharreko denboraldian irakasleak zein titulaziotan parte hartu duen deskargatuko du, koordinatzaile gisa zenbat ikasturtetan jardun den jakinaraz dezan.

- 1.1. Irakasleak ondo bete du bere koordinatzaile lana?

- ☐ Bai
☐ Ez
☐ Ez dago behar besteko ebidentziarik

Oharrak:

Nahitaez bete beharreko eremua, Ez aukeratuz gero

2. Irakasleak **mailako** koordinatzaile lanak zenbat ikasturtetan egin dituen, ebaluatu beharreko denboraldian.

Sistemak ebaluatu beharreko denboraldian irakasleak zein mailatan parte hartu duen deskargatuko du, koordinatzaile gisa zenbat ikasturtetan jardun duen informatzeko.

- 2.1. Irakasleak ondo bete du bere koordinatzaile lana?

- ☐ Bai
☐ Ez
☐ Ez dago behar besteko ebidentziarik

Oharrak:

Nahitaez bete beharreko eremua, Ez aukeratuz gero

3. Irakasleak **moduluko** koordinatzaile lanak zenbat ikasturtetan egin dituen, ebaluatu beharreko denboraldian.

Sistemak ebaluatu beharreko denboraldian irakasleak zein modulutan parte hartu duen deskargatuko du, koordinatzaile gisa zenbat ikasturtetan jardun duen informatzeko.

- 3.1. Irakasleak ondo bete du bere koordinatzaile lana?

- ☐ Bai
☐ Ez
☐ Ez dago behar besteko ebidentziarik

Oharrak:

Nahitaez bete beharreko eremua, Ez aukeratuz gero

4. Irakasleak **irakasgaiko** koordinatzaile lanak edo irakasgaiko arduradun lanak zenbat ikasturtetan egin dituen, ebaluatu beharreko denboraldian.

Sistemak ebaluatu beharreko denboraldian irakasleak zein irakasgaitan parte hartu duen deskargatuko du, koordinatzaile gisa zenbat ikasturtetan jardun duen informatzeko.

- 4.1. Irakasleak ondo bete du bere koordinatzaile lana?

- ☐ Bai
☐ Ez
☐ Ez dago behar besteko ebidentziarik

Oharrak:

Nahitaez bete beharreko eremua, Ez aukeratuz gero

5. **Beste era bateko** koordinazio instituzionala (adierazi zein):

1. Eremu askea. Gehienez ere, 500 karaktere.				
1 ikasturte ☐	2 ikasturte ☐	3 ikasturte ☐	4 ikasturte ☐	5 ikasturte ☐
2. Eremu askea. Gehienez ere, 500 karaktere.				
1 ikasturte ☐	2 ikasturte ☐	3 ikasturte ☐	4 ikasturte ☐	5 ikasturte ☐

- 5.1. Irakasleak ondo bete du bere koordinatzaile lana?

- ☐ Bai
☐ Ez
☐ Ez dago behar besteko ebidentziarik

Oharrak:

Nahitaez bete beharreko eremua, Ez aukeratuz gero

3.2. Prestakuntzara, berrikuntzara eta hobekuntzara bideratutako jarduera instituzionalak

Ebidentziarik izatekotan, deskriba itzazue irakasle honek burutu dituen prestakuntza eta berrikuntza jarduerak eta irakaskuntzaren hobekuntzari begira egindako jarduerak, bereziki ikastegiak berak eta ikastegiarentzat antolatutako haiek:

Oharrak:

Eremu librea

Eskerrik asko zure laguntzagatik

2. *ERANSKINA.*- IKASTEGIKO KALITATE BATZORDEARI ZUZENDUTAKO GALDERA-SORTA EREDUA



ARGIBIDEAK

- Erantzun ezazu hautatutako laukian “X” bat jarrita
- Zure balorazioa eskala honen arabera adieraz ezazu:

1= Ez nago batere ados galderak dioenarekin
2= Pixka bat ados nago galderak dioenarekin
3= Erdizka nago ados galderak dioenarekin

1= Nahiko ados nago galderak dioenarekin
5= Guztiz ados nago galderak dioenarekin

IKASTEGIA

1. DOCENTIAZ programan erabilitako adierazleak egokiak dira irakaskuntza jarduera ebaluatze

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

2. DOCENTIAZ programaren dimentsio bakoitzeko zamak ondo banatuta daude

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

3. DOCENTIAZ programa irakasleak beren irakaskuntzaren kalitatearen arabera bereizteko baliagarria da

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

4. DOCENTIAZ programa honela defini daiteke:

Hezigarria; irakasleek irakaskuntza jardunbide egokiak gauzatzeko gida gisa erabiltzen dute

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

Beharrezkoa; irakaskuntzari garrantzia ematen dio

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

Egokia; ikastegiei akreditazio prozesuetarako laguntza ematen die

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

Gardena; ebaluazio irizpideak argitaratuta daude

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

5. Marka ezazu programa definitzen

duen kalifikatzaile bat:

6. DOCENTIAZ programan irakaskuntza jarduerari buruz informatzeko ezarritako iritzi iturri hauek egokiak dira:

Irakasleak

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

Ikastegiko Kalitate Batzordea

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

Ikasleak

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐



7. DOCENTIAZ programan ezarritako tresna hauek irakaskuntza jarduerari buruz informatzeko egokiak dira:

Autotxostena

☐ 5 ☐

Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena

Ikasleen iritzi inkesta

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

8. DOCENTIAZ programak hedapen handia izan du.....

☐

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5

9. Kalitate Batzordeak egin beharreko txostenaren edukia egokia da

☐

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5

10. Ikastegiko Kalitate Batzordeari eskatutako DOCENTIAZ programako adierazleak ikastegiaren kudeaketa sistemaren zati dira: (X batekin markatu)

a.- Bai.....

b.- Ez.....

c.- Batzuk.....

d.- Etorkizunean sartzea aurreikusita dago .

11. Adierazi txosten bakoitza egiteko erabilitako denbora (ordutan edo minututan):

12. Txostenak egiteko ezarritako epea nahikoa izan da

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

13. Adierazi autotxostena egitea zaildu duten hiru alderdi

1.-

2.-



3.-

14. Web orrialdearen edukia autotxostena egiteko lagungarria izan da..... 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐
15. Aplikazio informatikoa txostena betetzeko lagungarria izan da Ikastegiko Kalitate Batzordearentzat 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐
16. Erabiltzailearen gida erabilgarria izan da txostena aplikazio informatikoan betetzeko 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐
17. Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (SED/IEZ) emandako prestakuntza saioa lagungarria izan da txostenak betetzeko 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐
18. SED/IEZeko langileek behar bezala erantzun diete egindako kontsultei 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐
19. SED/IEZeko langileek behar izan dugun guztietan lagundu digute..... 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5 ☐

Adierazi nabarmendu nahi duzun beste alderdiren bat: